

GORPUZBIDEA.—Azkueren Hiztegia eskuratzear, inoiz harriturik agertzen gara, hitzik arruntenak falta direla ikustear. Adibidez, *Oztopo*. Eta horren antzekoa dugu *Gorpuz-bide* edo *Gorputz-bide* ere. Harrigarria benetan hain hitz arrunta izanik jaso gabe gelditzea. Hala ere, Azkueren lana ikaragarri handia izan zela inork ukatu ezinezkoa da.

Plazido Mujikak bere *Diccionario Castellano-Vasco* (1965) hartan honela jaso zuen: «*camino funerario* = anda-bide BG, zurrunbide S, gorpu-bide, gorputz-bide».

Baina ez du bide horren izate zehatza argitzen, zeren elizatik hilerrirainokoa ere *camino funerario* izan daitake, eta *gorputz-bidea* auzo edo baserritik elizara artekoa baizik ez da. Eibarren *korputz-bidia* erabiltzen dugu eta hori zer den argi eta garbi agertu zigun Toribio Etxebarriak *Lexicón del Euskara dialectal de Eibar* (1965-1966) deritzan hiztegi hartan: «*Korputz-bidia*. El camino rural por donde se lleva a los muertos al pórtico de la iglesia, para el entierro. Korputz-bidia eta baita eliz-bidia esaten jako, korputzak Eliz-atarira jatxitzeko izentautako bidia».

EUSKARA BATUAREN MERITOAK, DEL BURGO-REN USTEZ.—Politikoeak aspaldi erakutsi ziguten azalez sendo direla eta kulturaz mehar. Del Burgo-k ordea, azal sendoaz gainera oso gogorra erakutsi digu, Madrid-eko Club Siglo XXI elkartean otsailaren hasieran «Nuevas ideas» zeritzan hitzaldiaren bidez. Erdal kazetariak laster aisatu zuten berri hori, ez ordea bakearen izenean. Baina, idea berririk ba ote da dikta-dore kasta hortan?

Han agertu zituen ideetako egi bakarra: «Somos una nación y no tan sólo un Estado. Los estados se improvisan, cambian, e incluso desaparecen. Las naciones permanecen».

Haregatik erabili zuten Cervantes eta B. Gracián-ek «nación vizcaína» eta «nación vascongada». Ikusi besterik ez dugu Co-rominas-ek zer dakarren, *Nacer* hitza latinetikako *nasci*-tik datorrenez zer nolako kontzeptoak hartu dituen.

Arrazoizko zertxo bat egon daiteke beste esaldi hartan ere: «El nacionalismo vasco ha concedido una tregua a Navarra, pero ha iniciado una sutil política de filtración cultural, ya que el *batua* es un instrumento para la creación de la conciencia nacional vasca». Bai, bere oinarrian hori izango zen Errege Katolikoen asmoa ere Nebrijari gaztelera batuaren erregelak jartzea eskatu ziotenean. Eta, Del Burgo-k, hain nafarza-le izanik, Nafarroako euskara eta bertako erromanze zaharra itoazten dituen hura erabiltzen du. Erromanze zaharra esan dut? Oraingo nafar erdaldunak erabiltzen dutena bera erabali-ko baluke ere ez litzake gaizki, «un poquico» balitz ere.

Gure ihardespena honako hau da: euskara batua euskal abertzaletasunaren kontzientziak itzartzeko bada, Del Burgo jaunak zergatik ez dio inoiz lagundu Nafarroan «batua» ez den bertakoari, gaztelarari lagundu dion neurri berean? Aukera ona izan zuen karguetan zegoelarik. Nafar euskalkientzako laguntza ere oso pozik har genezakean.

Hara hor, igarri gabe, Del Burgo-k nola salatzen duen nafar jatortasunaren aurkako grina. Bestela, kontuak atera ditzala noren morrontzapean dabilen.

J. S. M.